

Eilastasuna proiektu proposamena.

Proiektuak aurkezteko galdetegia.



PROIEKTU IZENA. *

Zanbiako Nkabika komunitateko umezurtzen eskolatzea.

HERRIALDEAN PROIEKTUARI BURUZ.

HERRIALDEA. *

Zanbia.

ELKARTEA. *

Ez dago elkarerik. Kauseni Kabwe, bitartekariaren bitartez harremana zuzena izango da.

ONURADUNAK. *

Namibia komunitateko familia zaugarrien babesik gabeko 70 umezurtz.

PROIEKTUAREN LABURPENA. *

Zanbiako Nkabika komunitateko ume zaugarrien eskolatzea.

Proiektu honetan 70 bat umezurtz parte hartzen dute. Kasu askotan hiesak jota daude eta inongo babesik ez dute. Egoera afektiboa oso larria da ere ume hauentzako, orokorrean guraso bat edo biak falta zaizkie.

Komunitate honetan eskola publikorik ez dago. Inguruan dauden eskola pribatuak oso urruti daude, oso garestiak dira eta hurbiltzeko baliabiderik ez dagoenez, ume horiek ez dute inoiz eskolatzerik izan eta hezkuntza sistematik kanpo daude. Ondorioz, letragabeak dira, gehienek ez baitakite irakurtzen edo/eta idazten.

Momentu honetan, ume horiek herriko azokara doaz, goizeko 8:00etatik eguerdiko 12:00ak arte. Bertan, oinarrizko heziketa jasotzen dute, borondatezko hiru irakasle eskolak ematen baitizkiete. Haur horiek, adinez hiru talde osatzen dituzte: 3-5 urte, 6-7 urte eta 8-11 urte. Orokorrean, talde bakoitzak horietako irakasle batekin egoten da. Ordu horietan matematika, ingelesa, gizarte zientziak, Chitonga (bertako hizkuntza)... dira batez ere jorratzen dituzten ikasgaiak.

HELBURUAK. *

Ume horiek bere eskolatze prozesuan jarraipena izatea eta ondorioz Nkabikako komunitatearen hezkuntza proiektua indartzea da proiektu honen helburu nagusia.

Horretarako, ondorengo bermatzea beharrezkoa aurreikusten da:

- 1.- Borondatezko irakasleei pizgarri bat ematea, horien eguneroko asistentzia eta jarraipena bermatu ahal izateko.
 - 2.- Herriko azokan estaldura bat egitea eskolak baldintza hobeagotan eman ahal izateko.
 - 3.- Eskola altzariez hornitzea: mahaia, aulkiak...
 - 4.- Liburuak eta material suntsikorren erosketa...
-

GARATUKO DIREN JARDUERAK. *

Proiektuaren EAeko 2020-21 ikasturtean Rafak eramango du eskolara. Bere plazan, Hernani BHiko ZIGen (Zeregin Ikasteko Gela) batez ere garatuko litzateke. Laburbilduz, ondorengo jarduerak aurreikusten dira:

- Hemengo ikasleek, Nkmibiako Komunitatearen egoeraren ezagupena. Horretarako ikasleei proiektua azalduko zaie, argazkiak edo/eta bideoak ikusiz...
 - Zanziako egoerari buruzko hitzaldiak Idoia koordinatzaileak emango ditu. Hauek ingelesez, gazteleraz eta euskaraz izan daitezke.
 - Ikastetxean erakusketa bat antolatu.
 - Nkabika umekin harremanetan jarri. Eskutitzen bitartez, guatxapen bitartez, e-posta bitartez, bideoen bitartez...
 - Sortuko diren beste hainbat jarduera.
-

PARTE-HARTZAILEAK. *

Eilastasun kidea

Koordinatzailea: . Komunitatean egon zen. Ume horien eskolatze proiektua martxan jarri zuen.

Bertakoak: Mulillo (irakasle boluntarioa), Mr Shabalu (boluntarioa) eta Told (gizarte langilea)

BALIABIDE MATERIALAK. *

Diru laguntza eta hemengo eskolarekin sortuko diren jarduerak.

HEZKUNTZAN DUEN ERAGINA. *

Hezkuntza proiektua da. Beraz, hezkuntzarekin lotura eta eragin zuzena du.

*Klaseak goizetik bakarrik izatetik jardunaldi osokoak izatera pasako dira.

*Gelak erosoagoak izango dira.

*Ikasteko materiala izango dute...

*Irakasleriaren egonkortasuna bermatuko da.

*Ume asko analfabetismotik aterako dira.

KOMUNITATEA ETA ANTOLAKETA KOLEKTIBOAN DUEN ERAGINA. *

Komunitate horren gizaki ahulenei, oinarrizko atentzioa ematen zaie.

Epe luzera begira, ume horiek komunitatearen parte direnez, helduak direnean, "oinarrizko" ikasketak izango dituzte. Ondorioz, pertsona kultuagoak, "osoagoak"... izango dira eta bizitzarako prestatuagoak egongo dira. Komunitatean horren guztiaren isla ezinbestean nabarmenduko da eta horrela, komunitate guztia aberastuko da.

GENERO BERDINTASUNEAN DUEN ERAGINA. *

Dakigunez, Afrikan emakumeak oso bazterturik daude, hezkuntzaren munduan bestek beste. Irakaskuntzarako aukerak gizonekiko askoz murrizagoak dira.

Proiektu honek neska zein mutilen arteko eskubide berberak bermatzen ditu.

KONTAKTURAKO PERTSONA HERRIALDEAN. *

E-POSTA. *

TELEFONO ZENBAKIA.

INFORMAZIO GEHIGARRIA.

Idoia Gastonek, aurkezten dugun proiektu honen koordinatzaileak, bertan, Nkabikako komunitatean, bere kabuz eta borondatez 2019ko otsailaren hasieran martxan jarri zuen ume hauen eskolatze proiektua. Horretarako, komunitateko buruzagi batekin harremanetan jarri zen eta eskolatze proiektu hau beharrezkoa ikusten zuela eta martxan jartzeko prest zegoela esan zion Idoiak. Komunitatearen oniritzia jaso zuen eta herriko azokan leku bat egin zieten; han hasi zen eskolak umeei ematen. Bitartean beste bi borondatezko irakasle aurkitu zituen eta martxan jarri ziren hirurak irakasle modura. Idoia 6 hilabetez, 2019ko uztailararte, bertan egon zen umeei eskolak ematen. Hasieran, 30 neska mutilekin hasi zen, gero 50 izatera pasa ziren. Euskal Herrira bueltatu behar izan zenean, lotuta utzi zuen dena proiektua aurrera segitu zezan. Egun, 70 bat neska mutilek parte hartzen dute eskolatze proiektu honetan. 70 ume horietatik gutxi gora behera erdia neskak dira. Oso garrantzitsua da komunitatearentzako ume hauen eskolatzea, zer esanik ez bertako emakumeentzako.

EUSKAL HERRIKO IKASTETXEEKIN LOTURA.

IKASTETXEA. *

ONURADUNAK. *

ZIGeko (Zeregin Ikasteko Gela) ikasleak

HELBURUAK. *

Ikasle horien sentsibilizazioa aniztasunarekiko, beste gizarte edo/eta komunitate batzuekiko, emakumearekiko... Nola ez, guztiz desberdina den beste errealitate baten ezagupena eta horren guztiaren ikasketa

JARDUERAK. *

- Hemengo ikasleek, Nkmibiako Komunitatearen egoeraren ezagupena. Horretarako ikasleei proiektua azalduko zaie, argazkiak edo/eta bideoak ikusiz...
 - Zanziako egoerari buruzko hitzaldiak Idoia koordinatzaileak emango ditu. Hauek ingelesez, gazteleraz eta euskaraz izan daitezke.
 - Ikastetxean erakusketa bat antolatu.
 - Nkabika umeekin harremanetan jarri. Eskutitzen bitartez, guatxapen bitartez, e-posta bitartez, bideoen bitartez...
 - Sortuko diren beste hainbat jarduera.
-

BULTZATZAILEAREN -Eilastasunkidea- KONTAKTURAKO DATUAK. *

E-POSTA. *

TELEFONO ZENBAKIA. *

INFORMAZIO GEHIGARRIA.

DIRU KONTUAK. PARTE ECONÓMICA.

AURREKONTUAREN ERABILPEN AURREIKUSIA. USO PREVISTO DEL PRESUPUESTO. *

- 1.- Borondatezko irakasleei pizgarri bat ematea, horien eguneroko asistentzia eta jarraipena bermatu ahal izateko.
- 2.- Herriko azokan estaldura bat egitea eskolak baldintza hobeagotan eman ahal izateko.
- 3.- Eskola altzariez hornitzea: mahaiak, aulkiak...
- 4.- Liburuak eta material suntsikorren erosketa...
5. ...

2020rako AURREKONTU PROPOSAMENA. PROPUESTA PRESUPUESTO 2020. *

3000 €

INFORMAZIO GEHIGARRIA. INFORMACIÓN ADICIONAL.

Aurreko puntua, ezinbestean bete behar denez, diru kopuru hori jarri dut. Kopurua txikiagoa da. Beraz, aurrekontuaren diru kopurua gutxi gora beherakoa denez zehaztuko dut.

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios